

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN)

USURBIL

Plan estrategikoa: 2004-2007

Helburu nagusia **Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.**

Helburu estrategikoa 1 - Euskara ondorengoetaratzea**Esparrua 1. a - Irakaskuntza**

Neurria 1. a. 01 - Hizkuntza-politikaren arloan garatutako ekimenen eraginik aldekoena hezkuntza-arloan antzeman da, hain zuzen ere, EAEko eta Nafarroako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan. EAEn, irakaskuntza-sistemako B ereduaren eta bereziki D ereduaren onarpenari esker gertatu da euskararen areagotzea gazteenen artean.

Ekintza
1. a. 01/001 - Haurrak herrian eskolaratzeko herri mailako erakunde arteko plangintza bateratua egin
1. a. 01/002 - Etorikin familietako kideen hizkuntza eta gizarte integrazioa
1. a. 01/003 - Bigarren hezkuntzako ikastereduak hobetzeko plana: ikasleek euskarazko aukerak eska ditzaten eskuorria argitaratzea
1. a. 01/004 - Bigarren hezkuntzako ikastereduak hobetzeko plana: materiala itzultzea
1. a. 01/005 - Usurbildik kanpo ikasten dutenen errolda egin eta eguneratua mantentzea

Neurria 1. a. 03 - Egitarau zehatzak eratu eskolaz eskola, irakaskuntzarako ez ezik eskolako ekintza guztietako harreman-hizkuntza ere izateko, bai eta euskararekiko atxikimendua eta euskaraz bizitzen lagunduko duten ohiturak bultzatzeko ere.

Ekintza
1. a. 03/001 - Konpromiso eta ziurtagirien bidea aztertu irakaskuntzan
1. a. 03/2 - Ikastetxeetan euskararen normalkuntza planak martxan jartzeko eta daudenetan garatzeko laguntzak eskaini
1. a. 03/002 - Euskararen normalkuntza bidean udalerrian ditugun ikastetxe bakoitzaren egungo errealitatea zein nolakoa den jasoko duen diagnosis egitea
1. a. 03/8 - Irakurzaletasuna bultzatzeko dauden ekimenen berri ematea eta horiek gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak edo laguntza eskaini

Neurria 1. a. 06 - Eskolaz kanpoko erabilera-esparruekin (herria-auzoa-lagunartea-aisia) zubiak egiteko euskara-batzordeak osatu.

Ekintza
1. a. 06/2 - Euskararen erabilera bultzatuko duen Euskararen Batzordean ikastetxearen presentzia bermatzea

Esparrua 1. b - Euskalduntze-alfabetatzea

Neurria 1. b. 01 - Euskalduntze-alfabetatzeko ekintzabideak erabileraren ingurukoekin uztartu, eta arreta berezia jarri euskararen bizitasun etnolinguistikoa indartzeko ezinbestekoak diren gune geografikoetan, giza taldeetan eta gizarte-eremuetan, horiei lehentasun osoa eskainiz, ahalik eta eperik laburrenean, hizketarako gai diren euskaldunak lortzeko. Horretara heltzeko, efektu biderkatzailea izan dezaketen giza taldeak identifikatu behar dira, helburu zehatzei erantzuteko ikastaroak antolatu eta hasierako mailatik bukaerarainoko ikasketa-prozesu osoa hitzartu gizarteko hainbat eragile eta talderekin.

Ekintza
1. b. 01/6 - Alfabetatze ikastaroak indartu eta jarduera esparruka identifikatutako taldeei eskaini
1. b. 01/006 - Etumeta-AEK Euskaltegiarekin hitzarmen berria egin
1. b. 01/001 - Euskalduntze-alfabetatzerako dirulaguntzak langabetuei
1. b. 01/002 - Euskalduntze alfabetatzea sustatzea
1. b. 01/003 - Euskara ikastea doan izanez gero, udalerrian izan dezakeen erantzuna jakite aldera, Usurbilgo udalerrira mugatutako azterlan bat burutzea
1. b. 01/004 - Udalerrian euskara ikastea doan izan dadin, bideragarritasun plana prestatzea. Bideragarritasun ekonomikoa, laguntza jasotzeko eskubideak eta betebeharrak e. a. ondo zehatz jasoko dituen
1. b. 01/005 - Etorquinei bereziki egokitutako euskara ikastaroak sustatu
1. b. 01/7 - Euskara ikasten ari direnak euskara erabiltzen motibatzea
1. b. 01/4 - Herritarren artean euskara ikastearen garrantziaz sentsibilizatzeko eta herrian euskara ikasteko dauden aukeren berri ematea

Esparrua

1. c - Familia

Neurria 1. c. 01 - Euskararen familia bidezko jarraipenari ekiteko, bi gune nagusitan egin behar da indar: gazteengan, bikote-hizkuntza finkatzeari begira, eta familia osatu berriengan, haurren lehen hizkuntza ziurtatzeari begira. Horretarako, jarraipenean zuzeneko eragina (gurasoak, gurasogaiak, haurrak) nahiz zeharkakoa (haurtzaindegiak, zaindariak,...) dutenak sentiberatzeko eta eskolaratzeko ekintzak behar dira; halaber, euskaraz egiteko zerbitzuak, guneak eta aukerak eskaini behar zaizkie, xede-talde bakoitzari mezu eta ekintza zehatzak proposatuz.

Ekintza
1. c. 01/001 - Usurbilgo Hitanoaren erabilera bultzatzeko lana
1. c. 01/002 - Familia eta ingurune erdalduneko 12 urte arteko haur eta gazteen hizkuntza ikasketa eta erabilera: Neguko eta Udako Euskal Txokoak
1. c. 01/4 - Derrigorrezko ez den ikastaldian (0-3 urte) euskarazko hartzaindegiak edo haur-eskolak eskaini
1. c. 01/7 - Familia osatu berria duten bikote euskaldunetan bai haurrekin eta bai elkarren artean ere erabilera sustatzeari begirako jarduerak
1. c. 01/10 - Haurrentzako zerbitzuak kudeatzen dituztenekin hitzarmenak sinatu euskararen erabilera egokia bermatzeko
1. c. 01/11 - Ezkondu edo jaunartzea egin behar dutenen gonbidapenak edota oroimen-txartelak egiten duten enpresei laguntza eskaini, euskararen erabilera egokia bermatzeko
1. c. 01/12 - Haur jaioberrien gurasoentzat euskararekin sentiberatzeko egitasmoak (hitz goxoen zerrenda, cda...)

Helburu estrategikoa 2 - Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza

Esparrua

2. a - Administrazioa

Neurria

2. a. 01 - Euskara administrazioaren zerbitzu-hizkuntza izango dela bermatu, batik bat osasun-zerbitzuetan, herrizaingo-zerbitzuetan eta justizia-administrazioan. Era berean, lan-hizkuntza ere izan dadin egitasmoak abian jarri. Estatuko administrazioako erakundeetan eta, bereziki, Justiziakoetan ere euskararen erabilera sustatzeko plangintza zehatzak martxan jarri.

Ekintza
2. a. 01/1 - Agintariak ere programa hauetan inplikatu
2. a. 01/2 - Dirulaguntzak banatzeko deialdietan hizkuntza-irizpideak ezarri
2. a. 01/002 - Udal barruan erabilera planaren jarraipen bilerak egitea zinegotzi arduradunekin eta zerbitziburuekin
2. a. 01/3 - Euskaraz lan egiteko interneteko baliabideen berri eman udal langileei
2. a. 01/005 - Herriko paisaia linguistikoa euskaldundu (udalak berak sortutakoa)
2. a. 01/006 - Udalarekiko harremanetan herritarrek euskara erabil dezaten sustatzea
2. a. 01/7 - Euskararen erabilera arautuko duten udal ordenantzen jarraipenerako sistema bat antolatu
2. a. 01/007 - Udal sarrera eta irteera erregistroaren hizkuntzazko jarraipena egin
2. a. 01/008 - Usurbilgo herri anbulatorioan herritarren hizkuntz eskubideak bermatu
2. a. 01/8 - Udalak egiten dituen zerbitzuen kontratueta hizkuntza-irizpideak ezarri
2. a. 01/9 - Udalak egiten dituen langileen kontratazio berrietan hizkuntza-irizpideak ezarri
2. a. 01/009 - Bake Epaitegian herritarren hizkuntza eskubideak ziurtatu
2. a. 01/10 - Udalak egiten dituen zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratueta hizkuntza-irizpideak ezarri
2. a. 01/010 - Estatuko administrazioarekiko dauden hizkuntz eskubideak bermatu
2. a. 01/11 - Udalak egiten dituen hornikuntza kontratueta hizkuntza-irizpideak ezarri
2. a. 01/011 - Udalean euskaraz bizitzeko gaitasunik ez duten politikariei euskara ikasteko bidea erraztu
2. a. 01/12 - Euskara zerbitzuaren eginkizunaren arabera baliabideen beharrak neurtu
2. a. 01/012 - Udal langileen hizkuntz eskakizunen jarraipen zehatza egitea
2. a. 01/13 - Udalak egiten dituen obra kontratueta hizkuntza-irizpideak ezarri
2. a. 01/14 - Udalak egiten dituen aholkularitza eta asistentzia kontratueta hizkuntza-irizpideak ezarri
2. a. 01/001 - Udal langileen hizkuntza prestakuntza bultzatu
2. a. 01/003 - Hizkuntza normalizazio prozesuaren inguruko informazio eta motibazio lana udal barrura begira
2. a. 01/004 - Idatzietan hizkuntza tratamendu elebiduna eskatzen duten herritarren errolda eguneratu eta udal zerbitzuetara zabaldu
2. a. 01/013 - Udal barruko erabilera planaren berri udal langile guztiei ematea. Noiz: 2004, 2005, 2006, 2007

Neurria 2. a. 04 - Herri-administrazioetan (bereziki udal eta eskualdeetan) euskararen erabilera normalizatzeko plangintzak gauzatu. Horretarako, euskara-zerbitzuak sendotu edo eratu eta hizkuntza-normalizatzaileen prestakuntzaz arduratu.

Ekintza
2. a. 04/4 - Euskara Batzordea osatzea, herriko ikastetxe, euskaltegi eta elkarteekin batera
2. a. 04/5 - Euskara Zerbitzua sendotu, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin elkarlanean

Esparrua 2. c - Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak

Neurria 2. c. 06 - Informazio-kanpainak antolatu eta sentiberatze-lana egin informazio-produktuen eskaria gero eta handiagoa izan dadin herritarren (jolas eta informaziorako), enpresen (informazio, interpretazio eta itzulpenarako) eta sektore publikoaren aldetik (informazio, itzulpen, interpretazio eta dokumentaziorako).

Ekintza
2. c. 06/001 - Herrian antolatutako teknologia berrien inguruko ekimenetan euskararen erabilera sustatzea
2. c. 06/3 - Euskara lantzeko tresnen zabalkundea egin herritarren artean
2. c. 06/4 - Udalak eta udalerriko elkarteek eta herritarrek interneten duten edo jartzekoa duten informazioa euskaraz ere egoteko laguntza teknikoa eta diruzkoa eskaini
2. c. 06/002 - KZ guneen bidez hainbat elkarrekin eta erakunderi web orria euskaraz sortzeko aukera eskaintzea
2. c. 06/003 - Udal web orrian euskararen erabileraren jarraipena egin
2. c. 06/004 - Udal web orria Euskara Zerbitzuko ekintzen berri emateko erabili
2. c. 06/005 - Herrian dauden web orriak indartzeko saiakera egin eta beharrezko diren baliabideak eskuragarri egin

Neurria 2. c. 07 - Euskal kulturaren ondareari buruzko informazioa digitalizatu eta hedatu.

Ekintza
2. c. 07/1 - Ondare kulturala bildu, ahal den neurrian digitalizatu eta zabaltzeko: toponimia, kondaira, gertaerak, euskalkiari buruzko informazioa, fototeka e. a.

Esparrua 2. d - Enpresa-mundua

Neurria

2. d. 01 - Enpresetan euskararen erabilera areagotzeari begira, hizkuntza-politika antolatu helburu horiek kontuan: merkataritza-ganbarak, enpresariak eta enpresari-elkarteak, elkargoak, sindikatuak, eta abar, hizkuntza-politika horretako partaide bihurtzea; lantokietan euskararen aldeko proiektuak ezartzeko markoa definitzea eta giza baliabideak nahiz ekonomikoak bideratzea; lantokien tipologiaren araberako proiektuak diseinatzea eta gauzatzea.

Ekintza
2. d. 01/001 - Usurbilgo enpresetan euskararen erabilera sustatzeko plana abian jarri
2. d. 01/3 - Bertako enpresen artean Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak eskaintzen dituzten laguntzak ezagutarazi eta eskaera egiteko languntza eskaini
2. d. 01/5 - Lehen hitza euskaraz izan dadin lagundu
2. d. 01/008 - Herri guneko merkataritza eta bestelako zerbitzuetan euskarazko eskaintza ziurtatu dadin laguntza eta konpromisoen bideari eustea
2. d. 01/9 - Merkataritza eta ostalaritza euskalduntzeko saioekin jarraitu
2. d. 01/2 - Bertako enpresekiko harremanetan euskara lehenetsi (tramite administratiboak, zirkularrak, gutunak,..)
2. d. 01/002 - Finantza erakundeekin hitzarmenak sinatu eta hauen jarraipena egin
2. d. 01/003 - Herriko talde eta langile mugimenduak sustatu eta euskararen erabilera bultzatu
2. d. 01/004 - Erabilera Planak diruzten enpresak ikasketak euskaraz egin dituzten gazteekin harremanetan jarri
2. d. 01/005 - Enpresei eta herriko establezimenduei errotuloetarako dirulaguntzak eskaini
2. d. 01/006 - Herriko erdigune eta auzoetako merkataritza, ostalaritza eta turismo jarduerak biziberritzea
2. d. 01/007 - Urbil merkataritza gunearen euskara planaren jarraipena egitea
2. d. 01/009 - Euskara merkataritzara: arrandegien sektorean eragitea
2. d. 01/010 - Euskara merkataritzara: harreman-sarean eragitea (MLTK)
2. d. 01/011 - Euskara merkataritzara: jatetxeen gida
2. d. 01/012 - Itzulpen enpresen, euskara planetarako laguntza ematen duten enpresen eta interneteko euskarazko baliabideen berri emanez eskuorria argitaratu herriko enpresa eta establezimenduetan banatzeko
2. d. 01/013 - Herriko merkatariei Udala Euskara Zerbitzuari buruzko informazioa eman
2. d. 01/014 - Konpromiso eta ziurtagirien bidea aztertu enpresetan
2. d. 01/015 - Udalerriko datozen enpresa edo komertzioei, udaletxeko hizkuntz errealitatea jasotzen duen informazio osotua ematea

Esparrua

2. e - Aisia

Neurria

2. e. 01 - Aisialdian lanean diharduten talde indartsuekin (parrokiak, eskautak eta abar) zein aisialdirako begirale eta zuzendarien prestakuntzan ari diren eskolekin (Hezibide, Edex,...) plangintza zehatza egin, begiraleen hizkuntza-trebakuntza antolatzeko eta aisialdiko ekintzetan euskararen erabilera areagotzeko neurri zehatzak eta egokiak har ditzaten uneoro

Ekintza
2. e. 01/1 - Udaleko aisialdi-ekintzak modu koordinatuan garatu
2. e. 01/003 - Herriko haur eta gazteekin lan egiten duten irakasle eta monitoreentzako euskarazko ikastaro laburra

Ekintza
2. e. 01/004 - Euskarazko jardueren aisiako gida argitaratzea
2. e. 01/5 - Aisialdiko elkarteen barne funtzionamenduan euskararen erabilera areagotzea lagundu
2. e. 01/001 - Herriko elkarteen hizkuntza beharren azterketa egitea
2. e. 01/002 - Aisialdiko begirale izateko ikastaroa
2. e. 01/005 - Konpromiso eta ziurtagirien bidea aztertu aisialdi arloan
2. e. 01/006 - Herriko gazteek bereziki euskaraz aritzeko dituzten beharren azterketa eta plangintza egitea

Neurria 2. e. 03 - Euskararen aldeko ekintza soilen ordeztuz, inguru hezitzailean eskaini aisialdi-zerbitzuak: herria, nortasuna, herri-kidetasuna, kondaira eta hizkuntza elkartuz, alegia.

Ekintza
2. e. 03/1 - Jolasaren ildoko ekintzak euskaraz antolatu
2. e. 03/001 - Euskarazko aisialdi eta kultur eskaintza auzo guztietara zabaltzea (Plis, Plas, txalo ta jolas!)
2. e. 03/3 - Hitzaldiak eta emanaldiak euskaraz antolatu
2. e. 03/6 - Udan euskaraz antolatzen diren ekintzak indartu
2. e. 03/7 - Udaren menpeko aisialdi eta kultur guneetan (ludotekak, kultur etxeak...) antolatzen diren ekintzetan euskarazko saioak bermatu
2. e. 03/002 - Sexu heziketari buruzko ikastaroak euskaraz

Esparrua 2. f - Kirola

Neurria 2. f. 01 - Hiruzpalau urteko plan estrategiko batean kirol-arloa euskalduntzeko hiru lan-esparru nagusi taxutu: materialaren sorkuntza eta hedapena; entrenatzaileentzako titulu ofizial eta ez ofizialak lortzeko ikastaroak; sentsibilizazio eta zabalkunde orokorra zein herri-mailakoa.

Ekintza
2. f. 01/1 - Udaleko kirol ekintzak modu koordinatuan garatu
2. f. 01/001 - Buruntzaldeko Kirola Euskaraz programa sustatu eta herri mailako jarraipena egin
2. f. 01/002 - Kirol Elkarteen barne funtzionamenduan euskararen erabilera areagotzen lagundu
2. f. 01/003 - Herriko gazte eta helduekin lan egiten duten monitore eta entrenatzaileentzako euskarazko ikastaro laburra

Neurria 2. f. 02 - Udalkiroldetietako langileak edo enpresa-zerbitzuak kontratatzerakoan hizkuntza-irizpideak ezarri. Udalen eta ekimen pribatuaren esku dagoen `Denontzako Kirola` programan euskarazko eskaintza bermatu. Federazioen laguntzaz euskararen erabilera areagotu jendaurreko kirol-agerpenetan: iragarki, megafonia, errotulazio eta argitalpenetan.

Ekintza
2. f. 02/1 - Kirol taldeei zuzendutako dirulaguntzetarako deialdietan hizkuntza-irizpideak ezarri

Neurria 2. f. 05 - Euskal Autonomia Erkidegoko nahiz lurraldeetako federazioetako jarduna euskalduntzeko plangintza egin Eusko Jaurlaritzarekin: langileak euskaldundu eta argitalpenetan eta elkarrenganako komunikazioan euskara erabili.

Ekintza
2. f. 05/1 - Federazioen eta kirol taldeen euskararen normalizaziorako barne plangintzak egiteko laguntza eskaini
2. f. 05/001 - Konpromiso eta ziurtagirien bidea aztertu kirol arloan

Esparrua 2. g - Erlijioa

Neurria 2. g. 03 - Euskarari buruzkoetan, ahalik eta bateratsuen jokatzea eskatu elizbarrutiei.

Ekintza
2. g. 03/001 - Konpromiso eta ziurtagirien bidea aztertu erlijio arloan
2. g. 03/4 - Euskararen erabilera plana abian jartzeko laguntza eskaini (teknikoa, baliabideetan...)

Helburu estrategikoa 3 - Euskararen elikadura**Esparrua 3. a - Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea**

Neurria 3. a. 03 - Hizkuntza-paisaia ugaldtu eta txukundu eta berbazko euskal kultur produkzioak ere landu.

Ekintza
3. a. 03/002 - Udal kalitatezko hizkuntza zerbitzua ziurtatzeko gida prestatu eta sustatu
3. a. 03/003 - Udalaren eta administrazioko euskararen terminologia bateratu eta jarraipen lana egin
3. a. 03/4 - Merkatal gunetako hizkuntza-paisaian (denda, taberna, akademiak eta abarrekoetakoan) euskararen presentzia txukundu eta areagotu
3. a. 03/004 - Hitanoaren azterketa eta erabilerari lotutako lana egitea
3. a. 03/1 - Toponimoak eta herriko ageriko hizkuntza-paisaia normalizatu Euskaltzaindiarekin bat etorritz
3. a. 03/001 - Hitza Jasoz taldearen lana argitaratzea
3. a. 03/005 - Etxe zahar eta baserrien toponimia normalizatu eta ezagutaratzea
3. a. 03/006 - Apellidoak abizendu
3. a. 03/007 - Aginagako angula inguruko lana argitaratzea

Esparrua 3. c - Liburugintza

Neurria 3. c. 01 - Datozen urteotan orain arte baino arreta handiagoa jarri erosle eta irakurleengan, irakurzaletasuna bultzatuz, marketina antolatuz, merkaturaz zabalduz, EITBren, eskolen, liburudenden, liburutegien eta liburu-azoken bidez.

Ekintza
3. c. 01/1 - Udal liburutegiak era egokian hornitu, ezagutzera eman eta euskal materialen erabilera sustatu bertan

Neurria 3. c. 04 - Irakurzaletasuna sustatzeko hitzarmenak egin Administrazioaren, Euskal Editoreen, Euskal Idazleen eta Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien elkarten artean.

Ekintza
3. c. 04/1 - Euskal literaturaren inguruko elkarteekin (idazleak, editoreak, itzultzaileak, bertsolariak) harremanetan jarri eta urteko programa definitu

Esparrua**3. f - Publizitatea**

Neurria

3. f. 02 - Herri-erakundeek euskarazko publizitatearen alde jarri, publizitate-prozesuko eragileen ondoan. Areago, euskarazko komunikabideak gizartearen begietarako edertzeko lana ere egin beharko lukete.

Ekintza
3. f. 02/1 - Herritarrek edo enpresek publizitatea euskaraz egiteko laguntza teknikoa eman
3. f. 02/001 - Herriko postontzietan banatzen den publizitatearen jarraipena egin

Esparrua**3. g - Kulturgintza**

Neurria

3. g. 01 - Kulturgintza: Haurrei eta gazteei zuzendutako kultur ekoizpenak lehenetsi, euskara biziberritzeko duten garrantziagatik.

Ekintza
3. g. 01/1 - Udalaren menpeko kultur guneetan euskarazko materialak eguneratuta izatea eta herritarren eskueran ipintzea
3. g. 01/2 - Euskaltegi, ikastetxe eta herriko elkarteekin batera ekintzak antolatu
3. g. 01/005 - Euskarazko produktuen katalogoa
3. g. 01/001 - Felix Aizpurua literatur lehiaketa
3. g. 01/002 - Santixabel Bertsopaper Lehiaketa
3. g. 01/003 - Gazteei musika sormenerako lokalak uztea
3. g. 01/004 - Bertsolaritza sustatzeko programa

Neurria

3. g. 04 - Kulturgintza: Administrazio guztien arteko loturak sendotu.

Ekintza
3. g. 04/1 - Inguruko herriein eskualdeko kultur zirkuituak antolatu (Kultur Elejira)

Neurria

3. g. 05 - Kulturgintza: Lan-baldintzak hobetzen, sortzaileen lanabesak egokitzen, beren lanaren oihartzuna ozentzen eta euskararen eta euskal kulturaren erabilera bultzatzen lagundu Kultura Sailak.

Ekintza
3. g. 05/001 - Elkarte eta taldeen arteko komunikazioa hobetu eta beren inizatibak herrian hobeto zabaldu
3. g. 05/2 - Euskarazko kultur plangintza diseinatu, aldizkakotasuna bermatzeari begira
3. g. 05/002 - Herri mailako dinamika soziokulturala biziberritzeko lanak eta proiektu berriak sustatzea
3. g. 05/5 - Herriko festetan eta kultur ekitaldi nagusietan euskararen presentzia bermatu

Ekintza
3. g. 05/6 - Udaletako azpiegiturak euskal kulturgintzan dabilzan taldeen esku jarri
3. g. 05/003 - Euskal kulturako dantza, musika-tresna, kanta eta ohitura desberdinen ikasketara herriko familia ez euskaldunetako seme-alabak erakartzea
3. g. 05/004 - Jexux Artze eta Ez dok Amairu taldearen lana ezagutzera ematea
3. g. 05/005 - Usurbili buruzko ikerketa lana egiteko beka deialdia
3. g. 05/007 - Konpromiso eta ziurtagirien bidea aztertu kultura arloan
3. g. 05/006 - Euskara sustatzeko dirulaguntzak

Esparrua**3. h - Hedabideak**

Neurria

3. b. 01 - Komunikabideen garrantzia gero eta handiagoa denez, euskarazko komunikabideak hizkuntza-normalizazioaren arlo estrategikotzat jo behar ditu administrazioak, baita euskarazko prentsak horretan zer paper jokatu behar duen erabaki ere, eta horren arabera laguntzak eskaini.

Ekintza
3. b. 01/2 - Komunikabideak euskarazko kultur, aisialdi eta kirol ekitaldien berriemaile eta partaide bihurtu
3. b. 01/001 - Herrirako euskaraz sortutako komunikaziorako eta informaziorako zerbitzu berrien sustapena
3. b. 01/002 - Konpromiso eta ziurtagirien bidea aztertu hedabide arloan

Neurria

3. b. 02 - Jokaera enpresarial egokiaren aldeko apustua egin behar du prentsak. Produktu desberdinak eta merkatuan lehiatzeko modukoak eskaintzea ezinbestekoa du. Horretarako, besteak beste, inbertsioak egin behar dira azpiegituran. Gobernuak sektore ekonomiko bat dela onartu eta enpresa-trataera eman behar dio.

Ekintza
3. b. 02/1 - Eskualde edo herri-mailako euskarazko komunikabideei laguntzak emateko irizpideak finkatu eta horren arabera esleitu dirulaguntzak
3. b. 02/2 - Euskarazko herri edo eskualdeko komunikabideetan teknologia berrien erabilera sustatu

Neurria

3. b. 03 - Euskarazko prentsak elkarlana bultzatu, baliabideei ahalik eta etekinik handiena atera, kalitatea hobetu eta produktu berriak eskaini behar ditu.

Ekintza
3. b. 03/1 - Eskualdean diharduten komunikabideen arteko elkarlana eta truke-lerroak eratzea sustatu
3. b. 03/2 - Haur eta gazteentzako euskarazko eskaintza sustatzea